

## **AZKEN AGURRAREN NEGARRA - KANTUA**

Nora zoaz Euskal gaztea arma hori eskutan  
Armen atzera deitzen naute Frantsen aldera  
Eskual Herritik urrunduz ta atzerrira joanak  
Ah ze negarra entzunen duzu Euskal Herrietan

**Morts pour la patrie**  
**eskuara baizik etzekiten haiek**

Gure historian zehar zenbat malko ta ezbehar  
Landetarratu gindutenekilan dugu orain hil behar  
Bere ama agurtu du etxolako atarian  
bere amak bisitatuko du atzerriko hilobian

**Azken agurraren negarra** Gorka Knörr abeslariaren kantua da. Gaia Ipar Euskal Herritik Lehen Mundu Gerlako gudalekuetara Frantziaren alde borrokatzera deituak ziren Euskaldunen egoera da, kantuak dioen bezala haietarik anitzek frantsesez hitz egiten ere ez zekitelarik, hauek "Morts pour la patrie" ("Aberriarengatik hildakoak") izan ziren.

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Azken\\_agurraren\\_negarra](http://eu.wikipedia.org/wiki/Azken_agurraren_negarra)

**Gorka Knörr Borrás** 1950eko otsailaren 2an Kataluniako Tarragona hirian sortu euskal kantaria eta politikaria da. Aita gasteiztarra eta ama katalana ditu. Henrike Knörreuskaltzain zenaren eta Roman Knörr enpresaburuaren anaia da. Haurra zelarik Tarragonatik Gasteizera etorri zen. Bere belaunaldiko abeslarien artean beti Arabaren ordezkari izan da. 1971ean lehenbiziko aldiz jendaurrean kantatu zuen eta handik gutira *Araba kantari* diskoa plazaratu zuen. Halere, haren musika ibilbidea zein izanen zen hobekienik erakusten zuen diskoa bigarrena da. Hau 1975ean *Nik nahi dudana* izenburupean argitaratu zen.


1976an *Txalaparta* diskoa plazaratu zuen, honekin Gorkak arrakasta handia erdietsi zuen eta diskoaren salmentak hupatu ziren, *Txalaparta* kantua eta Xabier Letek Lluís Llachen "*L'Estaca*" abestiei esker.

Politikari gisa ere Gorka Knörr Eusko Alkartasuna alderdiaren idazkari nagusi eta eurodiputatu izan zen. Alderdi honekin Eusko Legebiltzarreko lehendakariordea ere izan zen. Azken postu horretan zegoela Sozialista Abertzaleak alderdia ez desegiteagatik Juan Mari Atutxa (EAJ) eta Kontxi Bilbaorekin (Ezker Batua) batera auzitara eramana izan zen.

2006an Eusko Alkartasuneko kide izateari utzi zion.

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Gorka\\_Kn%C3%B6rr](http://eu.wikipedia.org/wiki/Gorka_Kn%C3%B6rr)

## AZKEN AGURRAREN NEGARRA - KANTUA



### ULERMEN GALDERAK :

1 ) Zer da kantuaren testuingurua ? (noiz ?) Justifika.

.....  
.....

2 ) Nor dira kantuko protagonistak ?

.....

3 ) Nondik nora joan behar du gizonak ?

.....

4 ) Zer zentzugabekeria (*absurdité*) azpimarratzen du autoreak ?

.....

5 ) Beste zein gertakari historikori erreferentzia egiten dio kantuek ?

.....  
.....

6 ) Zer bukaera iragarria (*prédire*) da ?

.....